



Bilbon, 2009ko urriaren 29an

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Saileko EAeko Etxebizitza Behatokiak "Etxebizitza Behatokiaren I. Foroa" antolatu du Bilboko Euskalduna jauregian, urriaren 29an.

Espainiako etxebizitza-behatokiaren esperientziak, premiak eta arazoak ezagutzea da ekitaldiaren helburua. Ideiak eta proiektuak partekatuko dira bertan, elkarri laguntzeko sare baten barruan lankidetzarako foro iraunkorrak sortzearekin batera.

Aurrerago ekimen zehatzak egiteko oinarriak finkatzea ere espero da, jardunaldiak, topaketak eta bilkurak antolatuko dituzten taldeak sortzeko, erakunde desberdinen arteko elkarlanaren bidez.

Hauxe da era honetako ekimen bat antolatzen den lehen aldia, eta interes handia piztu du: autonomia-erkidego gehien-gehienetako ordezkariak etortzea espero da.

EAeko Etxebizitza Behatokiak jarduera zabala du: Etxebizitza Sailak berak osatutako estatistikak kaleratzen ditu, datu horiei buruzko ikerketa eta azterketekin batera, besteak beste. Era berean, etxebizitza-politika alderatuei buruzko informazio ugari dauka, sektoreko ekitaldi eta albiste garrantzitsuenen berri jasotzen du eta indarrean dauden arau eta aurrekontuen ebaluazioak argitaratzen ditu aldiro-aldi.

Azkenik, EAeko etxebizitza-arazoetan sakontzen saiatzen da Behatokia, eta gai zehatzen inguruko topaketak antolatzen ditu horretarako. Bertan, adituak elkartu eta alor honetako jakintza eta esperientzia onak trukatzeko dituzte.

Ondorioak

[Ondorioak \(pdf, 57 Kb\)](#)